



Datuak Babesteko
Euskal Bulegoa
Agencia Vasca de
Protección de Datos



EUSKALIT

Kalitaterako Euskal Iraskundea
Fundación Vasca para la Calidad

DATUAK BABESTEKO EUSKAL BULEGOAREN ETA KALITATERAKO EUSKAL IRASKUNDEAREN ARTEKO LANKIDETZARAKO ESPARRU HITZARMENA

Vitoria-Gasteizen, 2007ko abenduaren 17an

BILDU DIRA

Alde batetik, Mikel Ugalde jauna, Kalitaterako Euskal Iraskundearen zuzendaria (aurrerantzean EUSKALIT), erakunde horren izenean eta ordezkartzan eta esleituta dauzkan eskumenez baliatuz. Erakundearen helbidea: Zamudioko Teknologi Parkea, 206-A eraikina – 48170 Zamudio (Bizkaia).

Beste aldetik, Iñaki Vicuña de Nicolás jauna, Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren (aurrerantzean DBEB) zuzendaria, Bulegoaren ordezkartza eginez, otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 15. artikuluan xedatutako eskumenak kontuan hartuta bere izendapena egin zuen 83/2004 Dekretuari jarraiki (2004ko maiatzaren 14ko 90 zk.ko EHAA).

Bakoitzak bere erakundearen izenean eta ordezkartzan jarduten du, eta biak aitortzen diote elkarri Lankidetzaz Hitzarmen hau izenpetu ahal izateko jarduteko legezko gaitasuna. Era berean,

ADIERAZTEN DUTE

- I. **EUSKALIT** fundazio pribatu bat dela, Erabateko Kalitatearen kultura bultzatuz, gizarteko eremu guztietan kudeaketaren arloan hobekuntza eta berrikuntza sustatzea xede duena, azken helburua EAEren garapenari, lehiakortasunari eta ongizateari laguntzea izanik.
- II. Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 10. artikuluko 1. paragrafoak xedatzen duenez, DBEB zuzenbide publikoko entea dela, nortasun juridiko propioa eta gaitasun publiko eta pribatu erabatekoak dituela, eta herri-administrazioekiko inongo loturarik gabe beteko dituela bere eginkizunak. Eginkizunak honako hauek dira funtsean:



Datuak Babesteko
Euskal Bulegoa
Agencia Vasca de
Protección de Datos



EUSKALIT

Kalitateko Euskal Iraskondea
Fundación Vasca para la Calidad

Legeak DBEBri aitortzen dizkion eginkizunez baliatzeko, Bulegoak honako lan edo jarduerak gauzatzen ditu, bestek beste:

- Datu pertsonalen tratamenduaren gaia dela eta, euren eskubideen gaineko informazioa ematea pertsonen eta babesaren ematea eskubide horietaz baliatzean.
- Legearen kontrako jarduerak ikertzea eta gertatu diren arau-hausteak ebaztea, hala badagokio, eta datu-tratamendua indarrean dauden legeetara egokitzeko beharrezko neurriak hartzeko eskatzea.
- Datuak Babesteko Erregistro batean jasotzea Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio eta erakundeek egiten dituzten datu pertsonalen tratamendu guztiak.
- Datuak babestearen arloan herritarrek eta erakundeek egiten dizkieten mota guztietako kontsultei eta txostenei erantzutea.
- Datuen babesaren gaineko kulturaren zabalkundea egitea, herritarrak sentsibilizatuz eta prestakuntza nahiz jardunbide egokiagoen erabilera bultzatuz erakunde publikoetako langileen artean.

Entitate biek, datu pertsonalen babesaren arloan eta kalitatearen arloan lankidetzan aritu behar diren jakitun, Esparru Hitzarmen hau izenpetzen dute eta ondokoa hitzartzen dute:

ESTIPULAZIOAK

LEHENA. Xedea.

Hitzarmen honen xedea da DBEBren eta EUSKALITen arteko lankidetzaren harremanetarako esparru bat eratzea datu pertsonalen babesaren eta kalitatearen arloetan, eta, horrela, elkarri laguntzea bakoitzaren helburuak betetzen.

BIGARRENA. DBEBren betebeharrak.

DBEBk honako jarduerak gauzatu ditu:

- a) EUSKALITen ekimenetan eta jardueretan laguntzea, adibidez, Ebaluatzaileen Kluba eta Europako Kalitatearen Astea bezalako jardueretan.
- b) EUSKALITeko ebaluatzaileei Datu Pertsonalen Babesaren arloko informazio saioak eta prestakuntza moduluak ematea.



Datuak Babesteko
Euskal Bulegoa
Agencia Vasca de
Protección de Datos



EUSKALIT

Kalitateko Euskal Inskutidea
Fundación Vasca para la Calidad

- c) EUSKALITekin batera aztertzea administrazioko zenbait entitateren edo horko zenbait arlo berezituen ebaluazioak egiteko ebaluatzaile klub bat sortzeko aukera.

HIRUGARRENA. EUSKALITen betebeharrak.

EUSKALITek honako jarduerak burutuko ditu:

- a) DBEBri laguntzea barne kudeaketarako sistema bat garatzen, horretarako Erabateko Kalitatearen arloko metodologiaren gainean dauzkan ezagupenak eta esperientziak eskainiz.
- b) Barneko aldizkako buletinaren bidez zabalkundea ematea ebaluatzaileentzako prestakuntza ikastaroei eta bestelako bitartekoei, eta euskal erakundeetan ezagupenak eta jardunbide egokiak sendotzeko lagungarri diren kontzeptuei.
- c) DBEBri laguntzea euskal administrazio publikoaren menpeko erakundeek, indarrean dagoen legedia kontuan hartuta, datu pertsonalen tratamenduan erabiltzen duten zorrotasuna ebaluatzeko metodologia bat garatzen.
- d) DBEBrekin batera aztertzea administrazioko zenbait entitateren edo horko zenbait arlo berezituen gaineko ebaluazioak egiteko ebaluatzaile klub bat sortzeko aukera.

LAUGARRENA. Urteko jarduera plana, egitasmoak eta jarduera zehatzak.

Esparru Hitzarmen honen esparruan zenbait programa edo jarduera zehatz ezarri ahal izango dira. Era berean, urtero eta ekitaldi bakoitza hasi aurretik, urteko jarduera plana erabakiko da.

Egitasmo, jarduera edo plan horiek zehazteko alde aurretik nahikoa denbora eta behar den aurrekontua egongo dira. Alde biek adostuko dute, alde bakoitzaren ahalegina eta dedikazioa orekatzeko asmoz, zein izango den kostu ekonomikoa eta bakoitzaren parte hartzea egitasmo, jarduera edo plan horietan.

BOSGARRENA. Hitzarmenaren jarraipena.



Datuak Babesteko
Euskal Bulegoa
Agencia Vasca de
Protección de Datos



EUSKALIT

Kalitateko Euskal Iraskundeak
Fundación Vasca para la Calidad

Hitzarmenaren Jarraipen Batzordea eratzen da eta bertan egongo dira erakunde bietako zuzendariak. Alde bietako edozeinek eskatzen duen bakoitzean bildu beharko da Batzordea eta gutxienez urtean behin. Hona hemen Batzordearen eginkizunak:

- Urteko jarduera plana, egitasmoak eta jarduera zehatzak zehaztea, halakorik badago, eta jarduera horiek nola gauzatu eta finantzatuko diren zehaztea.
- Planak eta egitasmoak betetzen direla egiaztatzeko jarraipena eta dirubaliabideen jarraipena egitea, halakorik egonez gero; eta, egoki ikusten bada, hobetzeko ekintzak proposatzea.
- Hitzarmenaren ezarpenaren eta interpretazioaren gainean egon daitekeen edozein gorabehera ebaztea.

Batzordearen idazkariak bileren akta jaso beharko du. Alde bien adostasunarekin hautatuko da idazkaria.

SEIGARRENA. Hitzarmenaren iraupena eta Hitzarmena bukatzeko arrazoiak.

Hitzarmen hau izenpetu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean eta indarrean egongo da 2008ko abenduaren 31 arte. Automatikoki luzatu da, bestelako baldintzarik adosten ez den bitartean.

Alde bietako edozeinek Hitzarmena bukatzea erabakitzen badu, idatziz jakinarazi beharko dio beste aldeari, eta jakinarazpena egin eta hiru hilabeteko epean bukatu egingo da Hitzarmena.

Hala ere, urteko Hitzarmen honen babesean alde biek adostutako Jarduera Planek eta programek edo jarduera zehatzek indarrean segituko dute bertan erabakitakoa bukatu arte.

Alde biek adostu dute Hitzarmena bukatzeko arrazoiak direla bertan zehaztutako klausulak ez betetzea eta indarrean dagoen legediak xedatzen duena kontuan hartuta, gerta daitezkeen bestelako ez betetzeak.





Datuak Babesteko
Euskal Bulegoa
Agencia Vasca de
Protección de Datos



EUSKALIT

Kalitaterako Euskal Iraskundea
Fundación Vasca para la Calidad

Ados daudela adierazteko, alde biek izenpetzen dute Lankidetzta Hitzarmen hau, bikoiztuta, hasieran adierazitako tokian eta egunean, eta Lankidetzta Hitzarmenaren ale bana hartzen dute.



Iñaki Vicuña de Nicolás
Agencia Vasca de Protección de Datos
Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren aldetik



Mikel Ugalde
Kalitaterako Euskal Iraskundea /Fundación
Vasca para la Calidad erakundearen aldetik

1.1

1.2

1.3



1.101